



1.Boulder Ligaxka '19 – GIPUZKOA

SAILKAPEN MISTOAK - INKESTA

AURKEZPENA

Gipuzkoako Eskolarteko 1.Boulder Ligaxka '19, antolatu dugun probaren sistemaren arabera, partaide guztiak espazio fisiko bera partekatuko dute eta aukera izango dute bloke guztiak frogatzeko sexu eta kategoria bereizketarik gabe. Honela, mutilen eta nesken berdintasuna eta parekotasuna sustatuko da.

Kiroltasunez hitz eginez, adin goiztiarretan desberdintasun fisiko gutxi dago sexuen artean. Ikasleak hazten ari izan ahala, desberdintasunak nabarmentzen dira. Mutilengako indar muskular handiagoa eta neskengako flexibilitate handiagoa. Eskaladan bi ezaugarriak eraginkor eta osagarriak dira.

Pasa den urtean inkesten emaitzetan oinarrituta, Gipuzkoako Eskolarteko Boulder Ligaxka '19ko lehenengo proban sailkapen mistoak egin ziren. Gai honekin adostasun handiagoa izateko inkesta berriro ere egin genuen 1.proban. Emaitza hurrengoak izan zen:

JASOTAKO INKESTAK

27 inkesta jaso dira guztira:

- Gurasoak.....24
- Entrenatzaileak.....3

Jasotako inkesten emaitzak

Emaitzak hurrengoak izan dira:

- **Sailkapen mistoa:**
 - ✓ % 89 Sailkapen mistoaren alde.
 - ✓ % 7 Aurka.
 - ✓ % 4 Berdin zaie.

BALORAZIOA

Emaitzetan argi nabarmentzen da gehiengoek sailkapen mistoaren alde daudela maila guztietan. Bi probetan egin dugu inkesta hau eta bietan gehiengo emaitza berdinarekin. Sailkapen orokorrean bai neskak eta bai mutilak maila berera lehiatu ahal izan direla egiaztatu da. Sailkapen mistoko formatua oso positiboki baloratzen dugu, Gipuzkoako Eskolarteko Eskaladan neska-mutilen partaideen aukera-berdintasuna sustatzeko.

Donostia, 2019ko otsailan